

# Autodefentsa Feminista:

## beldurrei aurre egiteko lanabes kolektiboa

Gaua. Beldurra. Kalea. Bakarrik. Beldurra. Ezezaguna. Beldurra. Horixe da indarkeria matxistaren inguruan askok dugun iruditeria. Horrenbestez, *Beldur Barik* programak izenburu hori izatea ez da kasualitatea. Urteak darama Euskal Herriko Mugimendu Feminista esaten neska\* eta emakume\*<sup>1</sup> gisa izendatu eta sozializatu garenok beldurrean heziak izan garela. Beldurra emakumeon gorputzak eta bizitzak kontrolatzeko eta menperatzeko balio du. Hau da, txiki txikitatik harreman sozialetan zein espazio publikoaren erabileran kontuz ibiltzeko eskatzen zaigu, eta horrek gure buruak momenturo babestu behar ditugula pentsatzera garamatza. Ondorioz, gure mugimenduak mugatzen ditugu, oztupoak antzematen ditugu bizitza sozialean parte hartzeko, beste pertsonetikiko dependentzia harremanak garatzen ditugu, ez dugu gure buruengan konfiantzarik, ezezagunekiko deskonfiantza dugu, kulpa sentimendu etengabea dugu gertakari desatsegin baten aurrean eta gure bizi esperientziari ez diogu zilegitasun nahikorik ematen. Ahulak garela eta arrisku etengabea gaudela sinisten dugu, eta gure inguruan ditugun instituzio, komunikabide zein inguru sozialek beste norbaiten babesa behar dugula adierazten digute<sup>2</sup>.

Ettxera bakarrik bueltatzeko beldurra izaten da izu horren adierazle nagusietakoa. Oso barneratuta dugu erasotzailea izkin ilun batetik irtengo den ezezaguna dela. Mito eta zurrumurrurik asko sortu dira indarkeria matxistaren inguruan eta, besteak beste, erasotzaileen ingurukoek aldagai pertsonaletan jartzen dute arreta eta erasotzaileari errua kentzea dute helburu. Askotan, erasotzailea arazo psikologikoak dituela edo mozkorra dagoela bezalako justifikazioak erabiltzen dira. Beste askotan irudi demonizatzaile bat sortzen dute eta horiek munstroak bailiran tratatu. Ondorioz, oso zaila egiten zaigu erasotzaileak errealitatean identifikatzea eta inguruan ditugun gizonekin ez ditugu lotzen. Hala ere, eraso gehienak inguru hurbilean gertatzen dira eta

<sup>1</sup> Emakume kategoria erabiltzen jarraitzen dugu gure egungo errealitatean politikoki eragiteko oraindik baliagarria delakoan, nahiz eta sexu-genero sistemak markatzen duen binomioaz gaindi bizipen, ibilbide, ahalmen eta identitate anitzak ere bagaren (bollerak, trans...). Asteriskoak askotariko subjektuei egina nahi die erreferentzia.

<sup>2</sup> [Nerea Barjolak](#) oso ondo ikertu eta azaldu du nola eraikitzen eta transmititzen den izu sexualaren fenomenoak. [FARRUKAS](#) taldeak ere inposatzen diguten beldurrari aurre egiteko eta bereziki San Ferminetako eraso matxistak salatzeko dinamika indartsua eta berritzailea jarri zuen martxan 2014. urtean.

konfiantzazko pertsonak eragiten dituzte, hortaz, izu horrek errealitateak badu ere, gehiago du gure arriskuaren autopertzepzioarekin lotura, errealitatean gertatzen denarekin baino.

### **Baina zer da bada, indarkeria matxista?**

Indarkeria matxistaren erroan sexuaren arabeko sozializazio prozesu binarioa dago, bi sexu aukera ezartzen baititu: emakumea eta gizona. Gainera, bi aukera horiek botere harremanean jartzen ditu: gizonak gailentzen dira eta emakumeak menpeko bilakatzen ditu. Horrez gain, derrigorrezko heterosexualitatea inposatzen du. Hortaz, arau horretatik kanpo dauden gorputz ez-normatiboak pairatu dezakete indarkeria matxista. Hau da, nesken, emakumeen edota askotariko genero zein sexualitate identitatea duten pertsona ororen (intersexualak, transexualak, homosexualak, transgeneroak, lesbianak eta ohiko sexu/genero sistema birsortzeari uko egiten dioten emakumeak eta gizonak) duintasuna, estimua nahiz integritate fisiko zein psikologikoa gutxiesten duten ekintza guztiak dira indarkeria matxista.

Egiturazko indarkeriaz ari gara. Jendarte eredu guztietan eta espazio sozial guztietan adieraz daiteke, askotariko maila eta mekanismoak erabiliz. Horiek aldatzen joan daitezke arrazaren, klasearen, jatorriaren, funtzionalitatearen, adinaren eta abarren arabera. Baina ez hori bakarrik. Egiturazkoa dela esaten dugu, jendartearen antolatze moduan txertatua baitugu. Patriarkatuak bigarren mailako herritar izendatu ditu emakumeak, eta bereizkeria egoera hori mantentzeko egiturak sortu. Zapalkuntza mantentzeko, ordea, indarkeriaz baliatu behar du. Horregatik da indarkeria matxista dominazio patriarkala iraunarazteko tresna nagusia.

Agerian geratzen da, berriz ere, genero sistema ez dela soilik kaltegarria bi sexu eta bi genero eredu hertsia proposatzen dituelako, bi aldaera horien artean hierarkia eraikitzen duelako baizik. Gizona emakumearekin gailentzen zaio, eta genero maskulinoarekin lotzen diren ezaugarriak femeninoarekin lotzen direnak baino gehiago baloratzen dira. Horrekin lotuta, emakumeoi besteen beharrak eta desioak lehenesten irakatsi digute, baita adeitsuak eta atseginak izaten ere. Ez zaigu ezetz esaten irakatsi; izan ere, eredu femenino nagusiek emakumeon identitatea eta autopertzepzioa besteentzat izatean eraiki da. Besteen beharrei erantzun behar diegu nor izateko eta gure desio, interes eta beharrak deuseztatu egiten ditugu.

Gertatu al zaizu inoiz norbaitekin gustura eta goxo-goxo egon, ligatzen, baina une batean, gehiago jarraitu nahi ez izan eta errudun sentitzea, ez oheratzeagatik? Eginez gero, noren desioa gailentzen da? Noren nahia bortxatu? Ezetz esatea, bestearen beharrak ez asetzea eta adeitsua ez izatea, irentsi ditugun feminitatearen arauen kontra doa, baina emakumeok gure beharrak ditugu, gure nahiak eta gure eskubideak. Eta horiek defendatzen ikastea da Autodefentsa Feminista.

### **Autodefentsa feminista gure buruak aldarrikatzeko tresna**

Gazteen Euskal Behatokiak 2018an kaleratutako datuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko 1.278 emakumek indarkeria matxista salatu zuten. Urte horretan bertan, Nafarroan<sup>4</sup>, indarkeria matxistagatik jarritako 1.041 salaketen artean, 397 emakume gazteek jarri zituzten, hau da, indarkeria matxista salatzen duten emakumeen %38 30 urtetik beherako gazteak dira.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen tasek (adin-talde bereko 1000 emakumeko kalkulatuak) ezberdintasun nabariak agertzen dituzte emakume gazteen eta 30 urtetik gorakoen artean (% 9,1 eta % 3,6 hurrenez hurren). Emakume gazteen artean tasa handiagoa izateak ez du esan nahi indarkeria matxista gehiago jasaten dutenik, baizik eta salaketa gehiago jartzen dituztela. Horrek esan nahi du indarkeriari tolerantzia txikiagoa diotela, identifikatzeko gai direla eta horri aurre egiteko emakume gazteak ahaldunduago daudela.

Autodefentsa Feminista ahalduntze prozesu horiek bultzatzeko tresna da. Euskal Herrian 80. hamarkadan lantzen hasi ziren emakume asanbladek bultzatuta (hasieran emakumeentzako autodefentsa deitzen zuten). Maitena Monroy 5aitzindari horietako bat da eta honela definitzen du: "Autodefentsa feminista ahalduntze feministako tresna politiko bat da, ez bakarrik teknika fisikoak edo psikologikoak ikasteko tresna; hori

<sup>3</sup> <https://www.justizia.eus/albisteak/gazteen-euskal-behatokia-2018an-15-eta-29-urte-bitarteko-1278-emakumek-indarkeria-matxista-salatu-zuten-segurtasun>

<sup>4</sup> <https://euskalerrirratia.eus/nafarroa/1573628117994-indarkeria-matxista-salatzen-duten-emakumeen-38ak-30urte-berako-gazteak-dira>

<sup>5</sup> [https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2019-09-06/hemeroteca\\_articles/por-que-defendemos-la-autodefensa-feminista](https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2019-09-06/hemeroteca_articles/por-que-defendemos-la-autodefensa-feminista)

defentsa pertsonala litzateke. Autodefentsa feministak proposamen politikoa indartu egiten du, bizi garen mundua deszifratzen laguntzen digulako, eta genero femeninoa desboteretzen gaituen elementu gisa identifikatzen”.

Orduz geroztik, asko garatu da autodefentsa feministaren deiarra. Euskal Herriko Bilgune Feministak urteak daramatza Autodentsa Feminista aldarrikatzen eta 2009.urtean Emagin Elkartearekin batera *“Beldurrak gurekin jai. Ekin autodefentsa feministari!”*<sup>6</sup> liburuxka argitaratu zuten. Bertan, aldarrikatzen zuten emakumeok bizi ditugun zapalkuntzetatik abiatzen dela erantzuna, eta autogestioaren bitartez, emakumeon defentsarako, gure buruak hobeto ezagutu eta indartzeko tresna bilakatzen dela. Kontzientziak astintzeko, lantzeko eta elkarrekin hausnartzeko gune zein uneak sortu behar direla. Gainera, zioten ez dela aski eraldaketaren bidean lan indibiduala egitea; hots, nahitaezkoa izan arren ingurua aldatzeko bultzada kolektiboaren beharra aldarrikatu izan dute.

Talde autonomo asko sortu dira herri eta txoko ugaritan eta saio trinkoak antolatzen dira herri nahiz ikastetxeetan. Esther Lopezek, beste aitzindarietako batek, SAFO Eskola sortu zuen Bilbon, eta bere hitzetan "autodefentsa feminista ez da bakarrik erasoetatik defendatzen edo belaunak hausten ikastea. Norbera maitatzea da kontua, hobeto bizitzeko”<sup>7</sup>.

### **Bakarrik ezin dut, lagunekin bai!**

Argi dago: Autodefentsa feminista eta ahalduntze prozesuak ezinbestean kolektiboak behar dute izan. Beste emakumeen bizipenak entzuteak ispilu egiten dio norberari eta gertatzen zaigun hori ulertzeko eta izendatzeko balio izan digu. Ez gaude ero, ez histerika, ez da gure errua, ez da naturala eta ez dugu zertan normalizatu behar.

Sistema patriarkalak neskon arteko lehiakortasuna bilatzen du. Kritikatu izan dugu ondokoa bere janzkerarengatik, makillatuegia joateagatik edo lizuna izateagatik. Autodefentsa feministak hori guztia deseraikitzeke begirada ere ematen digu. Ez gara

<sup>6</sup> <https://www.emagin.eus/wp-content/uploads/2018/01/autodefentsa-liburuxka.pdf>

<sup>7</sup> <https://www.elsaltodiario.com/autodefensa-feminista/autodefensa-feminista-una-herramienta-para-amarnos-por-encima-de-todo-y-de-cualquiera>

aske izango emakumeon arteko ahizpatasunik eta elkartasun sarerik gabe. Elkarrekin indartsuagoak gara, armatu gaitezen feminismoz eta ekin diezaiogun autodefentsa feministari! Beldurrak gurekin jai!

